

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 4901

*EBAZPENA, 2022ko urriaren 24koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, irakasle agregatuaren plaza betetzeko lehiaketarako deialdia egiteko dena.*

Indarrean dagoen arautegiari jarraituz –UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12ko erabakia, irakasle-ikertzaileen 2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzen duena (EHAA, 2019-12-27), 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19.Bat.2) artikulua, eta Hezkuntza Sailaren baimenarekin–, Errektorego honek, emanda dauzkan ahalmenez baliatuta, Erabaki honen I. eranskinean aipatzen den irakasle agregatuaren plaza hutsa (lotutakoa) betetzeko lehiaketarako deia egitea erabaki du, jarraian aipatutako oinarrien arabera

#### DEIALDIAREN OINARRIAK

##### 1.– Arau orokorrak.

1.1.– Lehiaketa honetan arau hauek bete beharko dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitatei buruzkoa (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bidez neurri batean aldatua); Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak, otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez onartuak (2011ko otsailaren 24ko EHAA); 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); 40/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena, UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa (martxoaren 18ko EHAA); irakasle iraunkorrak hautatu eta kontratatzeke prozeduraren arautegia, Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8ko bileran onartu zuena, Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko ekainaren 23ko erabakiaren bidez argitaratu zena (uztailaren 15eko EHAA) eta Gobernu Kontseiluaren 2014ko azaroaren 6ko akordioaren bidez aldatu zena (2014ko azaroaren 20ko EHAA); deialdi honetako oinarriak; aplikagarriak diren arau orokorrak; eta, aurreikusi ez diren alderdietarako, Herri Administrazioan sartzeko araubide orokorra arautzen duten estatuko xedapenak.

1.2.– Jakintza arlo berekoak diren eta ezaugarri berberak dituzten plazak deialdi desberdinetan atera ahal izango dira lehiaketara.

##### 2.– Hautagaiek bete beharreko baldintzak.

2.1.– Hautagaiek, lehiaketa honetan onartuak izateko, honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Hamasei urte beteak izatea.

b) Kasuan kasuko irakasleen kategoriako lanari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik eta eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea.

c) Diziplina espedientearen bidez estatuko administrazio orokorreko zerbitzutik edo autonomia, erakunde eta herrietako administrazioetatik aldendua ez izatea, eta eginkizun publikoak betetzeko

ezgaiturik ez egotea. Espainiar nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko kasuan kasuko estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo kondena penalik.

d) Ondoren adierazten den zenbatekoa ordaintzea plaza bakoitzerako: 23,49 euro.

Eskubideak ordaintzeko, dagokion diru sarrera edo transferentzia egin beharko da kontu korrante honetara (lehiakidearen izen-abizenak eta plazaren hurrenkera zenbakia zehaztuta):

Kutxabank:

UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza.

Irakasleen lehiaketetako tasak.

Kontu korrontearen zenbakia: ES73 2095 0292 94 3239002233.

Ordainketa posta edo telegrafia igorpenaren bidez egiten duten lehiakideek Deialdien eta Lehiaketan Atalera bidali behar dute (1397 posta kutxa, 48080 – Bilbao).

Eskariak aurkezteko epean zenbateko hori osorik ordaindu ez duten lehiakide guztiak lehiaketatik kanpo geratuko dira, eta ez da beste eperik zabalduko tasok ordaintzeko edo falta den kopurua osatzeko.

Dena dela, azterketa eskubideak ordaindu arren, ezinbestekoa da lehiaketan parte hartzeko eskaria ere aurkeztea errektoreari, behar bezala beteta eta epearen barruan.

2.2.– Betebehar akademiko espezifikoak:

a) Irakasle agregatuen kategoriako plazetarako.

Doktore titulua izatea.

Beste estatu batzuek igorritako tituluak izanez gero, homologatuta egon behar dute azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan jasotako aurreikuspenen arabera edo atzerriko goi mailako hezkuntza tituluak master eta doktoregoko titulu eta gradu akademikoekin homologatzeko prozeduraren bidez, zeina Gobernu Kontseiluak onartu baitzuen 2010eko maiatzaren 20an (2010eko urriaren 22ko EHAA).

Lotutako lanpostuari dagokion espezialista titulu ofiziala izatea (MIR).

Ikerketa eta irakaskuntza jardueraren aldeko ebaluazioa edukitzea, Gobernuak araudiaren bidez finkatuko duena eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agenciaren edo euskal araudian onartutako antzeko erakunde baten txosten batez egiaztatuko dena (Unibasqeko irakasle agregaturako edo Anecaren irakasle doktore kontraturako).

b) Hizkuntza eskakizun elebiduna daukaten plazetan, euskaraz irakasteko gaitasuna egiaztatzea, bide hauetakoren bat erabiliz:

b.1.– Euskararen arloko errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako Erabakian (uztaiaren 11ko EHAA) xedatutakoa betetzea, edo, bestela, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren pareko tituluak (2010eko azaroaren 15eko EHAA) aurkeztea.

Kasu honetan, bai titulua bai baliozkotzea lehiaketan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen lortutakoak izan beharko dira.

b.2.– Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren zehaztutakoari jarraituz, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko dena (2012ko apirilaren 16ko EHAA).

c) Ofiziala ez den hizkuntza bat egiaztatzea eskatzen duen plaza bat bada, kasuan kasuko hizkuntzan eskolak emateko gaitasuna eduki beharko da egiaztatuta, modu honetara:

c.1.– Ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruz Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2010eko ekainaren 24ko akordioaren bidez onartutako arautegian ezarritakoaren arabera (2010-12-02ko EHAA).

2.3.– Ezingo dira lehiaketara aurkeztu UPV/EHUn lanean diharduten karrerako funtzionarioak, baldin eta betetzen ari diren plazak ezaugarri berberak badauzka (kategoria, jakintza arloa, saila, ikastegia eta hizkuntza eskakizuna).

2.4.– Epaimahaiak beste estatu batzuetako lehiakideei gaztelaniaz dakitela egiazta dezatela eskatu ahalko die, baldin eta uste badu probetan ez dela behar bezala egiaztatu.

2.5.– Artikulu honetan adierazitako baldintzak eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako eduki beharko dira beteta, eta lehiakideek baldintzok betetzen jarraitu beharko dute dagokion irakaskeraren kontratua egin arte.

### 3.– Eskaerak.

3.1.– Hautaketa probetan parte hartzeko eskaera egiteko, deialdi honetako III. eranskineko ereduak erabiliko da.

3.2.– Lehiaketan parte hartu nahi duten hautagaiek eskaera bidaliko diote Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreari, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezartzen dituen bideetako bat erabiliz, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasiko den hamabost egun baliouduneko epearen barruan. Eskaerak egiteko III. eranskineko ereduak erabili beharko da, eta eskaerak behar bezala beteta aurkeztuko dira, lehiaketan parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuekin batera. Lehiaketan parte hartzeko baldintzak eskaera aurkezteko azken egunerako bete beharko dira.

Parte hartzeko eskaera UPV/EHUko erregistro elektronikoen bitartez aurkeztu beharko da: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, «Jasotzailea» atalean, «Irakaskeraren Arloko Errektoreordetza» aukeratu behar da, eta, bigarrenik, «Deialdi eta Lehiaketen Atala» (U02000368). Interesatuak identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko du: UPV/EHUko txartela (Izenpe); Izenpe ziurtagiri digitala; NAN elektronikoa; edo Diruaren eta Zerga Ziguilaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Eta hori hala da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (14.e) artikulua), eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiarekin, zeinaren bidez onartu baitziren interesatuak UPV/EHUrako harreman elektronikotan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere.

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoen eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUraren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUraren bulegoetan aurkeztu diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoen

sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, hori guztia UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiaren arabera, zeinaren bidez onartu baitziren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoen zerrenda UPV/EHUko ikastegietako idazkaritzetan eskura daiteke, eta, gainera: Leioako Errektoregoko bulegoan, Bilboko Larrako Etxean, Arabako Campuseko Errektoreordetzan (Vitoria-Gasteiz) eta Ignacio M.<sup>a</sup> Barriola ikasgelategian (Donostia). Interneten ere kontsulta daiteke: [http://www.ehu.es/oficinas\\_registro.html](http://www.ehu.es/oficinas_registro.html). Erregistro gaietan laguntzeko bulegoen ordutegia helbide honetan kontsulta daiteke: <https://www.ehu.es/es/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>

Eskaera posta bulegoetan aurkezten duten interesdunek abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren 31. artikulua xedatutako moduan aurkeztu behar dute. 1829/1999 Errege Dekretuak posta zerbitzuak arautzen ditu, eta honako hau xedatzen du:

«Herritarrek edo erakundeek administrazio publikoetako organoei eskariak, idatziak eta jakinarazpenak bidaltzeko, posta zerbitzu unibertsala emateko prestazioa agindu zaion operadorearen bitartez, gutun-azala irekita aurkeztu beharko dute, bidali nahi duten dokumentuaren lehen orriko goiburuan posta zerbitzukoek argi eta garbi adieraz ditzaten bulegoaren izena eta bidalketaren lekua, eguna, ordua eta minutua. Era berean, igorleak igorpenaren xehetasunak ere agertzeko eska dezake, igorri nahi duen dokumentu nagusiaren kopiaren, fotokopiaren edo erreprodukzioaren aurreneko orria jatorrizko agiriarekin parekatu eta berdina direla egiaztatu ondoren; fotokopia hori ziurtagiri gisa aurkeztuko zaio administrazio organo eskudunari, dokumentu nagusia aurkeztu egin dela frogatzeko.

Aipaturiko diligentziak egin ostean, igorleak berak itxiko du gutun-azala, eta enplegatuak onarpena formalizatu eta onarpenaren gordekina emango dio; jatorrizkoa, berriz, bulegoan artxibatuko du.

Artikulu honetan xedatutako prozesuak errespetatzen badira, posta zerbitzu unibertsala eskaintzeko agindua duen eragileak onarturiko igorpenak behar bezala aurkeztutzat hartuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan eta hura garatzeko arautegian xedatutako ondorioetarako (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua)».

3.3.– Eskariarekin batera dokumentu hauek aurkeztuko dira:

a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia (espainiar nazionalitatea daukaten hautagaiek).

Espainiar nazionalitatea ez daukaten lehiakideek beren nazionalitatea egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko dute.

b) Deialdi honetako 2.2 oinarrian aipatzen diren baldintza akademiko espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuen fotokopia sinplea.

c) Azterketa eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen dokumentua.

d) Merezimenduen ziurtagirien fotokopia sinpleak. Merezimenduak aipatzen dira irakasle kontratatu iraunkorrek hautatu eta kontratatuzeko prozeduraren 15. artikuluan. Prozedura hori Euskal

Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an onartu zuen, eta Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez argitaratu zen eta deialdi honetako 7. puntuan (uztailaren 15eko EHAA).

e) Zinpeko aitorpena (VI. eranskina).

3.4.– Plaza elebiduna bada, lehiakideak eskaera orrian berariaz adierazi beharko du gaitasun hori dagoeneko baduen, Euskararen arloko errektoreordearen 2002ko ekainaren 5eko Erabakian (uztailaren 11ko EHAA) jasotako xedapenen arabera, edo apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako xedapenen arabera (2012ko apirilaren 16ko EHAA), edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren pareko tituluren bat duen (2010eko azaroaren 15eko EHAA).

3.5.– Ofiziala ez den hizkuntza bat egiaztatzea eskatzen duen plaza bat bada, lehiakideak eskaera orrian berariaz adierazi beharko du gaitasun hori dagoeneko baduen eta ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruzko arautegia onartzen duen Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2010eko ekainaren 24ko Erabakian (2010-12-02ko EHAA) ezarritakoari jarraituz jasotako xedapenen arabera baliozkotu dakioken.

3.6.– Izangaiak probak euskaraz egin nahi baditu, V. eranskina bete beharko du.

4.– Lehiakideak onartzea.

4.1.– Eskariak aurkezteko epea behin amaituta, errektoreak agindua emango du lehiaketarako onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzeari buruzko erabakia argitaratzeko Irakasle eta Ikertzaileen Ataleko iragarki oholean eta UPV/EHUko web orrian. Erabakian jasota geratuko da zein izan den lehiakidea baztertzeko arrazoia, eta 10 egun balioduneko epe luzaezina ezarriko da UPV/EHUko web orrian argitaratzen denetik akatsak zuzentzeko. Hala ere, zuzentzeko epe horretan lehiakideek ezin izango dute aurkeztu eskariak aurkezteko epea bukatu ondoren lortutako egiaztagiririk.

4.2.– Plaza elebiduna bada, lehiakideek euskaraz dakitela egiaztatu beharko dute, 3.4 oinarrian zehaztutakoaren arabera. Horrela egiten ez duten lehiakideak baztertuak izango dira.

4.3.– Ofiziala ez den hizkuntza bat egiaztatzea eskatzen duen plaza bat bada, lehiakideek kasuan kasuko hizkuntzaren ezagutza egiaztatu beharko dute, 3.5 oinarrian zehaztutakoaren arabera. Horrela egiten ez duten lehiakideak baztertuak izango dira.

4.4.– Eskaerekin batera aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, errektoreak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko erabakia emango du, eta erabaki hori Irakasle eta Ikertzaile Ataleko iragarki oholean argitaratuko da, bai eta UPV/EHUren webgunean ere.

Erabaki hori izapide egintza kualifikatua da, eta aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango da haren aurka UPV/EHUko errektorearen aurrean, erabakia UPV/EHUren web orrian argitaratu eta hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua eta hurrengoek ezarritako moduan (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea), edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko erabakian jasota ageriko da merezimenduak aurkezteko probarako deia Irakasle eta Ikertzaileen Ataleko iragarki oholean argitaratuko dela, bai eta UPV/EHUko webgunean ere.

4.5.– Ezin izango da aurkeztu onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendaren aurkako erre-kurtsorik, baldin eta interesdunak ez badu behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu, bere hartan utziriko egintza irmoa delako.

#### 5.– Epaimahaiak.

5.1.– Lehiaketetako epaimahaiak erabaki honen II. eranskinean adierazietako pertsonak osatuko dituzte, eta errektoreak izendatuko ditu. Epaimahaiei buruzko alderdiak jasota daude irakasle kontratatu iraunkorrek hautatu eta kontratatzekeko prozeduraren araudian (10. artikulua), Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an bileran onartutakoa, Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez argitaratua (uztailaren 15eko EHAA) eta Gobernu Kontseiluaren 2014ko azaroaren 6 bileraren akordioak aldatutakoa (2014ko azaroaren 20ko EHAA).

Epaimahaiak bost titularrek eta beste hainbeste ordezkok osatuko dituzte. Epaimahaiburua eta idazkaria epaimahaiko kideek aukeratuko dituzte beren artean.

Epaimahaiaren lehenengo bilerarako, eraketarako, epaimahaiburu eta idazkarien hautaketarako deialdia, komunikazioak eta gainerako jarduerak saileko zuzendarien bidez egingo dira.

5.2.– Epaimahaikideek ezingo diote uko egin izendapenari, bertan aritzea eragozten dien arrazoi justifikaturik ez badaukate behintzat. Errektoregoak, halakoetan, adierazitako arrazoia aztertuko du, eta erabakia hartuko bost egun balioduneko epean, izendapenari ezetz esaten dion idatzia jasotzen denetik kontaktzen hasita.

5.3.– Lehiakideek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, edo epaimahaikideek uko egin ahal izango diote parte hartzeari, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako parte ez hartzeko edo errekusatzeko egoeraren bat sortuz gero (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea).

Epaimahaikide titularrei bertan aritzea eragozten dien arrazoiren bat egonez gero (parte ez hartzeko edo errekusazio kasuetan, edo beste edozein arrazoirengatik), ordezkoko kideak arituko dira haien ordean.

Ordezko kideak ere ezin badu jardun epaimahaian, prozeduran parte ez hartzeko edo errefusatu izateko egoeraren batean dagoelako, kategoria eta antzintasun handieneko ordezkoa arituko da haren ordean. Ordezko guztiei ezinezkoa bazaie epaimahaian aritzea eta ezinezkoa bada epaimahaia ondorengo artikuluan azaltzen den moduan eratzea, beste epaimahai bat izendatuko da.

5.4.– Epaimahaia eratzeko deialdia epaimahaikide titular eta ordezkoko guztiei jakinaraziko zaie, bilera eguna baino 15 egun lehenago, gutxienez. Bilerako deialdian eguna, ordua eta tokia zehaztuko dira, eta UPV/EHUko web orrian eta probak egingo diren ikastegiko iragarki oholean argitaratuko da. Epaimahaia eratzerakoan kide titular guztiak bertan egonez gero, ordezkokoak ez dute zertan joan.

5.5.– Epaimahaia balioz eratzeko, gutxien dela bost kidek egon beharko dute. Epaimahaikideak egon daitezke funtzio publikoaren arautegian aurreikusitako edozein egoeratan edo haien parekoetan lan kontratadun langileen kasuan, borondatezko eszedentzian edo eginkizun gabetzean izan ezik. Seme-alabak zaintzeko eszedentzian daudenek parte hartu ahal izango dute epaimahaietan.

Epaimahaikide titularren batek eszedentzia hartzen badu, eginkizunez gabetzen badute edo funtzionario edo kontratatu iraunkorra izateari uzten badio, epaimahaia utziko du, eta ordezkoko jarriko zaio.

Epaimahaikide ordezkoren batek borondatezko eszedentzia hartzen badu, eginkizunez gabe-tzen badute edo funtzionario edo kontratatu iraunkorra izateari uzten badio, ordezkoen artetik kategoria eta antzintasun handiena daukanak hartuko du haren lekua. Aukera horiek guztiak agortuta ezin bada epaimahaia eratu, beste epaimahai bat izendatuko da.

Hala ere, behin epaimahaia eratuta, erabakiak hartzeko nahikoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria, edo beren legezko ordezkoak, eta epaimahaikideetako bat bertan izatea.

Epaimahaia eratzean bertan ez dauden kideak behin betiko geratuko dira epaimahaiaren jar-dueratik baztertuta.

5.6.– Lehen bileran, epaimahaiak honako erabaki hauek hartu beharko ditu, besteak beste:

- 1) Epaimahaiburuaren eta idazkariaren hautaketa.
- 2) Probatako emaitzak non argitaratuko diren, ikastegiko iragarki oholez gainera.
- 3) Lehiakideek zein hurrenkeratan hartuko duten parte probetan.
- 4) Balioespen irizpide zehatzak onartzea.

5.7.– Aipatutako erabaki guztiak probak egingo diren ikastegiko iragarki oholean argitaratuko dira.

5.8.– Epaimahaiaren jardun administratiboaz eta gestio ekonomikoaz idazkaria arduratuko da, unibertsitateko administrazioko langileen laguntzarekin.

6.– Probak.

6.1.– Epaimahaiek, jarduterakoan, bermatu egingo dute lehiakide guztiek aukera berberak dituztela, eta publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuko dituzte.

6.2.– Deialdi honetan eta irakasle kontratatu iraunkorrek hautatu eta kontratatzeko prozeduran (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an onartua eta Irakasle-leen arloko errektoreordearen 2008ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez argitaratua, uztailaren 15eko EHAAn, Gobernu Kontseiluaren 2014ko azaroaren 6ko akordioaren bidez aldatu zena, azaroaren 20ko EHAAn) zehaztuta ez dauden alderdietarako, epaimahaiak jarraituko dio Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoez xedatzen duenari.

6.3.– Probak egiten hasi aurretik, epaimahaiak eguna eta ordua zehaztuko ditu, lehiakideek lehenengo proban erabiliko dituzten merituak aurkez ditzaten. Informazio hori argitara emango da, UPV/EHUren webgunean eta probak egingo diren ikastegiko iragarki oholean jarrita. Lehiakideek merezimendu horien egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte bertan. Epaimahaiak, era berean, gainerako probak zein egun eta ordutan egingo diren zehaztuko du.

Merezimenduak aurkezteko ekitaldia epaimahaia eratu eta hurrengo egun baliodunean izango da. Hala ere, lehiakideek uko egin ahal izango diote epe horri.

6.4.– Lehenengo proba lehiakideek agiriak eta merezimenduak aurkeztu eta hurrengo egun baliodunean egingo da. Hala ere, lehiakideek uko egin ahal izango diote epe horri. Hurrengo probak hori bukatu eta berehala egingo dira.

6.5.– Ez da beharrezkoa fotokopiak erkatzea, baina aurkezpenera jatorrizkoak eraman beharko dira, epaimahaiak eta gainerako lehiakideek egiaztatzeko aukera izan dezaten.

Eskatzaileek aukera izango dute eskarian adierazitako datuak zehaztu edo osatzeko nahi dituzten elementuak gehitzeko, eta epaimahaiak erabakiko du onartu eta kontuan hartuko dituen.

6.6.– Oinarri hauetako 6.8 oinarrian aipatutako dokumentuak bi hilabetez edukiko dituzte gordeta Deialdi eta Lehiaketan Atalean, epaimahaiak proposamena egiten duen egunetik zenbatzen hasita. Baina proposamen horren kontrako errekurtsorik aurkezten bada, dokumentuak gordeta eduki beharko dira, ebazpen administratibo edo judicial irmo bat eman arte.

Beste urtebete igarotzen bada eta interesatuak ez badira aipatutako dokumentuak hartzera joan, unibertsitateak dokumentuak suntsitu ahal izango ditu.

6.7.– Epaimahaiko buruak aurkezpen ekitaldian jakinaraziko du, halaber, lehiakideek zein epe izango duten gainerako lehiakideek proba egin baino lehenago aurkeztutako dokumentuak aztertzeko.

6.8.– Lehiakideek honako dokumentu hauek emango dizkiote epaimahaiburuari aurkezpen ekitaldian:

6.8.1.– Irakasle agregatuaren kategoriako plazetan:

a) Curriculum vitae (bost ale), VII. eranskineko ereduari jarraiki; eta curriculumean aipatutakoa egiaztatzen duten argitalpenen eta dokumentuen ale bana.

b) Lehiakideak plaza eskuratzen badu aurrera eramango lukeen irakaskuntza eta ikerketa proiektua (bost kopia), kasuan kasuko jakintza arloko gai edo espezialitateetako baten programa izango dena. Proiektuak unibertsitateak deialdian emandako zehaztapenen arabera izan beharko du.

c) Ikerlan original bat (bost kopia).

6.9.– Irakasle iraunkorren plazetarako lehiaketak hiru proba edo fase izango ditu, denak baztertzailak. Proba horiek ebaluatzeko, kontuan hartuko dira irakasle kontratatu iraunkorrek hautatzeko eta kontratatuzko prozeduran (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an onartua, eta 2008ko uztailaren 15eko EHAA-n argitaratua, Gobernu Kontseiluaren 2014ko azaroaren 6ko akordioaren bidez aldatu zena, azaroaren 20ko EHAA-n) ezarritako Irizpide Orokorrak eta Irizpide Espezifikokoak (IX. eranskina) eta epaimahaiak onartutako irizpide zehatzak.

6.10.– Irakasle agregatuaren lehenengo proban, lehiakideak bere merezimenduak eta ikasketa, irakaskuntza eta ikerketa ibilbidea azalduko ditu, bai eta bere irakaskuntza eta ikerketa proiektua ere. Proiektu horren barruan delako jakintza arloko gai edo espezialitateetako baten programa sartuko da. Lehiakideek behar beste denbora izango dute ahozko azalpen horretarako, baina 60 minututik pasatu gabe.

Ondoren, epaimahaiak lehiakide bakoitzarekin eztabaidatuko du, bi orduz gehienez, honako gai hauen inguruan: aurkeztutako merezimenduak, irakaskuntza proiektua eta ikerketa proiektua.

Epaimahaiak adituen iritzia eskatu ahal izango du, lehiakideek alegatutako merezimenduei buruz. Nolanahi ere, txostenak ez dira lotesleak izango, eta lehiaketaren aktari atxikiko zaizkio.

Proba horretan, 50 puntu lor daitezke, gehienez ere, eta gainditzeko eta bigarren probara igarotzeko, 25 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

Irakasle agregatuaren kategoriako plazetan, bigarren proban, lehiakideak gai bat aurkeztuko du, eta epaimahaiarekin eztabaidatuko. Gaia lehiakideak aurkeztutako programakoa izango da, eta hark aukeratuko du, zozketaz ateratako hiruren artetik.

Proba horretan, 25 puntu lor daitezke, gehienez ere, eta gainditzeko eta hirugarren probara igarotzeko, 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

Irakasle agregatuaren kategoriako plazetan, hirugarren proban, lehiakideak ikerlan original bat aurkeztu, eta epaimahaiarekin eztabaidatuko du.

Proba horretan, 25 puntu lor daitezke, gehienez ere, eta proba gainditzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

6.11.– Lehiakide bakar batek ere proba edo fase guztiak gainditu ezean, epaimahaiak eman gabe utziko ditu plazak.

6.12.– Proba edo fase bakoitza bukatuta, epaimahaia bilduko da, eta kide bakoitzak puntuazio bat emango dio lehiakide bakoitzari, eta balorazio hori azaltzeko txostena aurkeztuko du. Lehiakideak baloratzean, baremo orokorrari eta epaimahaiak onartutako irizpide espezifikoerri erreparatuko diete epaimahaikideek. Epaimahaikide guztiak ados badaude, txosten bakar bat egin ahal izango du epaimahaiak, kuantifikatua eta arrazoitua.

Berdinketarik badago, epaimahaiburuak kalitate botoa izango du.

6.13.– Epaimahaiak, IX. eranskinean adierazitako irizpide orokor eta espezifikoerri gain, honako irizpide orokor hauek izan beharko ditu kontuan:

a) Epaimahaian parte ez hartzeko eta epaimahaikideak errekusatzeko eskariak behin ebatzita, epaimahaikideek ezin izango dute utzi balioetsi eta kalifikatu gabe lehiakiderik.

b) Proba edo fase bakoitzaren balorazioa eta kalifikazio aritmetikoa lortzeko, epaimahaikide guztiak emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egingo da.

Lehiaketako proba guztiak baztertzailak izango dira, eta bakoitza gainditzeko gehieneko puntuazioaren erdia lortu beharko da. Epaimahaiak ezin izango du eskatu fase bakoitzean ezarritako gehieneko puntuazioaren erdia baino gehiago ateratzea, prozesua gainditzeko eta plazarako proposatua izateko.

6.14.– Epaimahaiak beste estatu batzuetako lehiakideerri gaztelaniaz dakitela egiazta dezatela eskatu ahalko die, baldin eta uste badu probetan ez dela behar bezala egiaztatuta.

7.– Merezimenduen balorazioa (IV. eranskina).

Hiru probak egin ondoren eta hautaketa prozesua zer hautagaik gainditu duten zehaztu ondoren, merezimenduak balioetsiko dira, honako hauen arabera:

1) Jakintza arlorako gaitasun probak gaindituta izatea (uztailaren 26ko 774/2002 ED) edo akreditazioa izatea irakasle titularrerako edo katedrarako Aneca (urriaren 5eko 1312/2007 ED): 20 puntu.

2) Euskara jakitea elebidun ez diren plazetan baino ez da izango kontuan, eta deialdi honetako VIII. eranskinari jarraiki balioetsiko da, Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 8an irakasle kontratatu iraunkorrek hautatu eta kontratatuzeko onartutako prozedurarekin (2008ko uztailaren 15eko EHAA) bat etorrita. Merezimendu honengatik prozesuan guztira lor daitekeen puntuazioaren % 11 lortu ahal izango da gehienez.

## 8.– Kontratazio proposamena.

8.1.– Amaierako nota bi probetan lortutako noten batura izango da, eta horri zazpigarren oinarrian aurreikusitako merezimenduetan, halakorik bada, lortutako puntuak batuko zaizkio.

8.2.– Proba guztiak gainditu dituen lehiakiderik badago, epaimahaiak kontratazio proposamena egingo du, txostenak eta zenbaketa aritmetikoak kontuan hartuta. Epaimahaiaren proposamena probak egingo diren ikastegiko iragarki oholean argitaratuko da, bai eta UPV/EHUren webgunean ere.

8.3.– Kontratatzeko edo plaza bete gabe uzteko proposamenean, lehiakide bakoitzaren balioespen zehatza jasoko da, arrazoiak emanda, eta lehiakide bakoitzak zenbat puntu lortu dituen ere adieraziko da. Plaza hutsik uzteko erabakiaren kontra erreklamazioa aurkez dakioke otsailaren 15eko 17/2011 Dekretu bidez (otsailaren 24ko EHAA) onartutako UPV/EHUko Estatutuetan aurreikusitako Erreklamazio Batzordeari 15 eguneko epean, erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

8.4.– Ezin izango da plaza hutsik utzi seigarren oinarrian aipatutako probak gainditu dituen lehiakideren bat badago.

8.5.– Epaimahaiek lehiakideak ordenatuko dituzte lortutako puntuazioaren arabera, eta puntuazio handiena lortu duena proposatuko dute plaza betetzeko. Ezin izango dute kide gehiago proposatu lehiaketan eskainitako plaza kopurua baino.

8.6.– Aurreko atalean zehaztutakoa gorabehera, epaimahaiek ordezkioak proposatu ahal izango dituzte, puntuazioaren arabera ordenatuta, plaza betetzeko proposatu den izangaiak kontratatu sinatzeari uko eginez gero, ordezko horiengana jotzeko.

8.7.– Epaimahaikide guztiek lehiakide guztiak kalifikatu behar dituzte. Epaimahaikide guztiak kalifikazioan bat etorri gero, txosten bakarra eman ahal izango dute, 6.12 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

8.8.– Kontratuak izateko proposatuak ez diren lehiakideek ezin izango dute plaza hutsei buruzko inongo eskubiderik aldarrikatu, ez eta inongo lan poltsetan sartzea eskatu ere. Izan ere, ordezkapenak egin behar direnean prozedura orokorra erabili beharko da, hots, sailak eta jakintza arloak egindako deialdietako lan poltsa arruntetara jo.

8.9.– Batzordearen jarduketa amaitu eta hurrengo bost egin baliodunetan, batzordeko idazkariak helbide elektronikoko bidez ([actas.vicer.profesorado@ehu.es](mailto:actas.vicer.profesorado@ehu.es)) bidaliko ditu sortutako aktak, eta, bestalde, Idazkaritza Nagusian entregatuko du, Deialdi eta Lehiaketan Atalaren bidez (barruko posta bidez), lehiaketako espediente administratiboa, honako dokumentu hauek bilduko dituen:

a) Epaimahaia eratzean egin beharreko akta eta epaimahaiaren saio guztietako aktak. Horietan jasoko dira egindako jarduera nagusiak eta proben balorazioan erabilitako irizpide nagusiak, irizpide espezifikoak eta irizpide zehatzak.

b) Lehiakideek aurkezpen ekitaldian epaimahaiburuari emandako dokumentuak, hala nola proposatutako irakaskuntza programa, ikerketa proiektuak, ikerlan originala, jakintza arloaren espezialitate edo gai baten programa, programaren gaia eta ikerlan originala.

c) Proba bakoitzaren txostenak eta zenbakizko balorazioak.

d) Probak gainditu dituzten lehiakideen merezimenduen balorazioa.

e) Plaza edo plazak betetzeko proposamenaren akta, kontrataziorako lehentasun ordenaren arabera osatutako hautagaien zerrendarekin.

8.10.– Lehiakideek Unibertsitateko Idazkaritza Nagusian eskatu ahal izango dute epaimahai-kide bakoitzak beren merezimenduen inguruan emandako balioespen arrazoituaren ziurtagiria (behar bezala kuantifikatua) edo, hala badagokio, epaimahaiaren txosten bakarra.

8.11.– Lehiakideek epaimahaiaren proposamenaren aurkako erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote errektoreari. Horretarako hamabost egun balioduneko epea izango dute, proposa-  
mena UPV/EHUko webgunean argitara ematen den egunetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa izapidetzeko onartzen bada, kontratazioa eten egingo da erreklamazioa behin betiko ebatzi arte.

8.12.– UPV/EHUko Estatutuek, otsailaren 15eko 17/2011 Dekretu bidez (otsailaren 24ko EHAA) onartutakoek, aurreikusitako Erreklamazio Batzordeak, irakasle eta ikertzaile funtzionarioen plaza betetzeko epaimahaien erreklamazioak aztertzen dituenak, erreklamazioa aztertuko du, eta errektoreak erabakiko du.

Erreklamazio Batzordeak lehiaketako espedienteaz aztertuko du, lehiakideen berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatzeko; egoki deritzen ekintza guztiak burutuko ditu, eta erreklamazioa onartzen duen ala ez erabakiko du hiru hilabeteko epearen barruan, erreklamazioa jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita. Epe hori berriazko erabakirik eman gabe igarotzen bada, erreklamazioa ezetsi delako izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

8.13.– Erreklamazio Batzordeak hartutako erabakiak lotesleak izango dira errektorearentzat eta, haren erabakiek administrazio bidea agortzen dutenez, aurka egiteko administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo beharko da zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legeari jarraituz.

8.14.– Erreklamazio Batzordeak erreklamazioa onartzea erabakiz gero, errektoreak argitara emango du erabakia, eta akatsa gertatu zen unera eramango da berriz prozedura; epaimahaiak, beharrezkoa izanez gero, beste izendapen proposamen bat egingo du.

## 9.– Dokumentuak aurkeztea eta kontratazioa.

9.1.– Epaimahaiak proposatutako kontratazioak errektoreak egingo ditu, lehiakideak behin egiaztatu eta gero deialdi honetako bigarren oinarrian aipatzen diren baldintzak betetzen dituela, Deialdi eta Lehiaketa Atalean behar diren dokumentuak aurkeztuta. Lehiakideak hogeiei eguneko epea izango du dokumentuak aurkezteko, kontratazio proposamena UPV/EHUko webgunean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

9.2.– Aurretik esandakoez gain, proposatutako lehiakideak, kontratua formalizatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu aipatutako epearen barruan:

a) Medikuaren ziurtagiri ofiziala, unibertsitateko irakasleari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik eta eragozpen fisiko edo psikikorik ez duela adierazten duena.

b) Zinpeko aitortpena, diziplina espedientearen bidez estatuko administrazio orokorreko zerbitzutik edo autonomia, erakunde eta herrietako administrazioetatik aldentuta ez dagoela, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik ez dagoela adierazten duena. Espainiar nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko beren estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo kondena penalik.

Karrerako funtzionario publikoek edo kontratatu iraunkorrek ez dituzte aurkeztu eta egiaztatu beharko atal honetan aipatutako dokumentu eta betekizunak. Horien ordean, lanean ari diren administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, funtzionario edo kontratatu iraunkorrek direla egiaztatu eta haien zerbitzu orrian azaltzen diren gorabehera guztiak adieraziko dituenak.

9.3.– Plaza betetzeko proposatutako lehiakideak ez baditu aurkezten eskatutako dokumentuak, galdu egingo ditu bere eskubideak, eta ezin izango du kontratua sinatu, ez baldin badu egiaztatzen dokumentuak ez aurkeztea ezinbesteko arrazoiengatik izan dela. Unibertsitateko errektoreak zerrendako hurrengo lehiakidearekin sinatuko du kontratua, lehiakide horrek gorago aipatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Hogei eguneko epea izango du horretarako, arrazoa jakinarazten denetik kontaktzen hasita.

10.– Azken araua.

10.1.– Deialdi honetan eta irakasle kontratatu iraunkorrek hautatu eta kontratatuzeko prozeduran (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an onartua eta Irakasleen errektoreordearen 2008ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez argitaratua, uztailaren 15eko EHAAn, Gobernu Kontseiluaren 2014ko azaroaren 6ko akordioaren bidez aldatu zena, azaroaren 20ko EHAAn) egunak zenbatzerakoan ez da aintzat hartuko abuztua. Hilabete horretan ez da inongo ekintzarik burutuko.

10.2.– Lehiaketa egin bitartean, epaimahaiek argituko dituzte deialdiaren aplikazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak, bai eta aurreikusi ez diren egoeretan nola jokatu ere. Dena dela, epaimahaien jarduna bat etorri beharko da urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearekin eta urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearekin.

10.3.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazioarekiko auzietarako Bilboko epaitegietan bi hilabetetako epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bestela, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreari hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hala egiten bada, ezin izango da jarri aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi errekurtsua, harik eta berraztertze errekurtsua berariaz ebatzi arte edo presuntziosko ezespena gertatu arte.

10.4.– Era berean, deialdi honetatik eta epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio egintza guztien aurka egin ahal izango da, urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako kasuetan eta bertan adierazitako moduan.

Leioa, 2022ko urriaren 24a.

Errektorea.

Eskumenak eskuordetuta (Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 28koa, errektorearena, 2021-02-12ko EHAA).

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea,  
FEDERICO RECART BARAÑANO.

## I. ERANSKINA

Plazaren zenbakia: 1. Kodea: AGVC6L1 – D00212-2. Kategoria: Irakasle Agregatua (lotutakoa). Jakintza arloa: Psikiatria. Medikuntza Espezialitatea: Psikiatria. Saila: Neurozientziak. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Basurtuko Unibertsitate Ospitalea). Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: Osoa. Egin beharreko irakaslanak eta ikerlanak: «Psikiatria» eta «Gidari-tzapeko Praktika Txandakatuak».

## II. ERANSKINA

1.– Plaza betetzeko lehiaketako epaimahaia. Kategoria: Irakasle Agregatua. Jakintza arloa: Psikiatria. Kodea: AGVC6L1 – -D00212-2.

## Batzorde titularra:

José Luis Carrasco Perera. Unibertsitateko Katedraduna. Madrilgo Unibertsitate Konplutensea.

Ana González-Pinto Arrillaga. Unibertsitateko Katedraduna. UPV/EHU.

Miguel Ángel González Torres. Unibertsitateko Irakasle Titularra. UPV/EHU.

Leire Erkoreka González. Osakidetzako Arloaren Medikua. OSI Barrualde-Galdakao.

Margarita Sáenz Herrero. Osakidetzako Arloaren Medikua. OSI Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta.

## Ordezko batzordea:

Luis Miguel Rojo Moreno. Unibertsitateko Katedraduna. Valentziako Unibertsitatea.

Pilar Alejandra Sáiz Martínez. Unibertsitateko Katedraduna. Oviedoko Unibertsitatea.

Sonia Ruiz de Azua García. Irakasle Agregatua. UPV/EHU.

Carmelo José Araluce Iturbe. Osakidetzako Arloaren Medikua. OSI Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta.

Jon García Ormaza. Osakidetzako Arloaren Medikua. Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea.

III. ERANSKINA  
ESKAERA-ORRIA

Errektorea:

Irakasle agregatuen kategoriako plazak esleitzeko lehiaketaren deialdia egin denez, plaza horietako bat betetzeko hautagaia izateko eskaria egiten dut.

I.– Lehiaketara ateratako plazaren datuak.

Plazaren Kodea	Kategoria	Jakintza arloa
Saila	Ikastegia	
Arduraldia	Hizkuntza eskakizuna	
Egin beharreko irakaslanak eta ikerlanak		
Deialdiari buruzko erabakia	EHAako data	

II.– Datu pertsonalak.

Lehenengo abizena		Bigarren abizena		Izena
Jaiotze eguna	Jaiotze tokia	Probintzia	N.A.N	
Helbidea (jakinarazpenetarako)		Telefonoa	Helbide elektronikoa	
Udalerrria	Posta Kodea	Probintzia		

## III.– Datu akademikoak.

Tituluak	Noiz lortuak
<b>Irakaskuntza Esperientzia</b>	
<b>Eskariarekin Batera Aurkeztutako Agiriak</b>	

.....(e), 20.....(e)ko.....ren.....(e)(a)n

Interesdunaren sinadura.

IV. ERANSKINA  
MEREZIMENDUAK

1.– Jakintza-arlorako gaitasun-probak gaindituta izatea (774/2002 ED, uztailaren 26koa) edo akreditazioa izatea irakasle titularrerako edo katedrarako ANECA (1312/2007 ED, urriaren 5koa):

.....  
.....

2.– Euskararen ezagutza egiaztatzeko agiria (plaza ez-elebidunetan):

.....  
.....

## V. ERANSKINA

## PROBAK EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

Probak euskaraz egin nahi dituzu?

Bai

Ez

Ezer markatu ezean, hautagaiak probak gaztelaniaz egin nahi dituela ulertuko da.

Eskabidea eta eranskinak behin aurkeztuta, ezin izango da proben hizkuntza hautapena aldatu.

Probak euskaraz egitea aukeratuz gero, hautagaiak Itzulpen Zerbitzuaren baldintzak onartutzat joko dira.

2022ko azaroaren 14a, astelehena

## VI. ERANSKINA

## ZINPEKO AITORPENA

SINATZAILEAK,.....Jaun/Andreak,

ESKATZEN DU: jarraian aipatutako Kodearekin identifikatutako plaza betetzeko lehiaketan parte hartzea:

Jakintza arloa:.....

ADIERAZTEN DU: izapide honetan aurkeztutako informazio guztia egiazkoa dela, informazio hori egiaztatzen duten jatorrizko edo autentifikatutako agiriak dituela (tituluak, ziurtagiriak eta gainerako agiri ofizialak barne). Era berean, informazio horren egiazkotasunaren erantzule egiten da, bai eta informazio hori faltsutzearen ondorioz sor daitezkeen kaltegaleren erantzule ere. Aipatutako deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela, baita Funtzio Publikora sartzeko eskatutako baldintza orokorrak ere.

Ez dutela baztertu Estatuko Administrazioetik edo Administrazio Autonomotik, instituzionaletik zein tokikotik, eta ez dagoela funtzio publikoak egiteko ezgaituta edo ez duela horrelakoetarako debekurik.

Unibertsitateko irakaslearen ohiko jarduna eragozten duen gaixotasun edo akats fisikorik ez izatea.

....., 20.....(e)ko.....ren.....(a)

Interesatuaren sinadura.

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTORE ANDREA

## VII. ERANSKINA

### CURRICULUM VITAE

Datu pertsonalak:

Abizenak eta izena.

Nortasun agiriaren zenbakia.

Non eta noiz emana:

Jaiotza: data, herria eta probintzia.

Bizilekua: helbidea, udalerrria, probintzia eta telefono zk.

Egungo kategoria irakasle kidegoetan.

Irakaskuntza eta ikerketa jardueren ebaluazio positiboa (Aneca edo Unigual).

Datu akademikoak:

- 1.– Titulu akademikoak (mota, zer erakundek edo zentrok emana, noiz emana, kalifikazioa, edukiz gero).
- 2.– Irakasle gisa izandako lanpostuak (kategoria, erakundea edo zentroa, arduraldia, izendapenaren edo kontratuaren hasiera eta amaiera data).
- 3.– Ikerketa jarduerak.
- 4.– Argitaratutako liburu eta monografiak (egilea edo egileak, izenburua, argitaratzailea, argitaletxea eta urtea) (argitaratzekotan badago, argitalpen kontseiluak onartu egin duela adierazten duen agiria).
- 5.– Espainiako edo atzerriko aldizkarietan argitaratutako lan zientifikoak (egilea edo egileak, izenburua, aldizkaria, alea, orrialdea, urtea) (argitaratzekotan badago, argitalpen kontseiluak onartu egin duela adierazten duen agiria).
- 6.– Beste argitalpen batzuk.
- 7.– Beste ikerlan batzuk.
- 8.– Ikerketa proiektuak, dirulaguntzaz egindakoak.
- 9.– Biltzarretan aurkeztutako komunikazioak eta hitzaldiak.
- 10.– Patenteak.
- 11.– Emandako ikastaroak eta mintegiak (zentroa, erakundea, gaia, garatutako jarduera eta data).

12.– Hartutako ikastaroak eta mintegiak (zentroa, erakundea, gaia, garatutako jarduera eta data).

13.– Jasotako bekak, laguntzak eta sariak (lizentziatu ondorengoak).

14.– Enpresetan eta norbere kabuz egindako jarduerak.

15.– Kargu akademikoak eta erakunde mailakoak.

16.– Irakaskuntza edo ikerketa arloko beste merezimendu batzuk.

17.– Beste merezimendu batzuk.

## VIII. ERANSKINA

## EUSKARAREN JAKITE MAILA

C2 eta C1 MAILAK: 13,20 puntu.

- Itzulpengintza eta Interpretazioko Lizentziatura, euskara A hizkuntzatzat hartuta.
- Euskal Filologiako Lizentzia.
- Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua, euskara A hizkuntzatzat hartuta.
- Euskal Ikasketen gradua edo Euskal Filologiako Gradua.
- Doktore titulua (Tesia euskaraz idaztea eta defendatzea).
- Osakidetzaren 4. hizkuntza eskakizuna.
- HAEEren 4. hizkuntza eskakizuna.
- HABEren 4. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila)
- Irakasleen Unibertsitate Eskola euskaraz.
- Gaitasun agiria.
- UPV/EHUn eskolak euskaraz emateko agiria.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), Iparralde Euskararen Erakunde Publikoak-Office Public de la Langue Basque-rena.
- Euskaltzaindiaren D agiria.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailarena.
- C1 Gaitasun Maila, EAEko hizkuntza eskola ofizialetakoa.
- Hizkuntza eskola ofizialetako Gaitasun Maila edo 5. maila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2. hizkuntza eskakizuna.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena.
- Ertzaintzaren 2. hizkuntza eskakizuna.
- Osakidetzaren 3. hizkuntza eskakizuna.
- HAEEren 3. hizkuntza eskakizuna.
- HABEren 3. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila)

HABEren 12. maila	9,90 puntu.
HABEren 11. maila	9,24 puntu.
HABEren 10. maila	8,58 puntu.

## B2 MAILA

7,92 puntu.

- Hizkuntza eskola ofizialen Maila Aurreratua.
- Hizkuntza eskola ofizialen euskarako laugarren maila (Ikasketa Plan Zaharra).
- Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena.
- Hezkuntza, Unibertsitate, Ikerketa Sailaren irakasle lanpostuen 1. hizkuntza eskakizuna.
- Ertzaintzaren 1. hizkuntza eskakizuna.
- Osakidetzaren 2. hizkuntza eskakizuna.
- HAEEren 2. hizkuntza eskakizuna.
- HABEren 2. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila).

HABEren 9. maila:

7,26 puntu.

HABEren 8. maila:

5,94 puntu.

## B1 MAILA

5,28 puntu.

- Hizkuntza eskola ofizialen oinarrizko maila.
- Hizkuntza eskola ofizialen tarteko maila.
- Hizkuntza eskola ofizialen euskarako hirugarren maila (Ikasketa Plan Zaharra).
- Osakidetzaren 1. hizkuntza eskakizuna.
- HAEEren 1. hizkuntza eskakizuna.
- HABEren 1. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila).

HABEren 7. maila:

4,62 puntu.

HABEren 6. maila:

3,96 puntu.

HABEren 5. maila:

3,30 puntu.

HABEren 4. maila:

2,64 puntu.

HABEren 3. maila:

1,98 puntu.

HABEren 2. maila:

1,32 puntu.

HABEren 1. maila:

0,66 puntu.

## IX. ERANSKINA

## IRAKASLE ETA IKERTZAILE KONTRATATU IRAUNKORRAK HAUTATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK

Irakasle osoak hautatzeko epaimahaiak kontuan hartu beharko ditu honako irizpide orokor hauek:

1.– Epaimahaian parte ez hartzeko eta epaimahaikideak errefusatzeko arrazoiak behin onartuta, epaimahaiko kideek ezin izango dute lehiakiderik utzi balioetsi eta kalifikatu gabe.

2.– Proba edo fase bakoitzaren balorazioa eta kalifikazio aritmetikoa lortzeko, epaimahaikide bakoitzak emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egingo da.

Lehiaketako proba guztiak baztertzailerak izango dira, eta bakoitza gainditzeko gehieneko puntuazioaren erdia lortu beharko da.

Epaimahaiak ezin izango du eskatu fase bakoitzean ezarritako gehieneko puntuazioaren erdia baino gehiago ateratzea, prozesua gainditzeko eta plazarako proposatua izateko.

Amaierako nota probetan lortutako noten batura izango da, eta horri 15. artikuluan aurreikusitako merezimenduetan, halakorik bada, lortutako puntuak batuko zaizkio.

3.– Lehenengo proban edo fasean, lehiakideak irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan eta, horrelakorik izanez gero, lan arloan egindako ibilbidea eta lortutako meritua aurkeztu, eta epaimahaiarekin batera aztertuko ditu.

Proba horretan, 50 puntu lortu ahal izango dira, guztira, eta bigarren fasera igarotzeko 25 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

4.– Bigarren fasean edo proban, lehiakideak bere irakaskuntza programa eta ikerketa proiektua(k) aurkeztu, eta epaimahaiarekin batera aztertuko ditu. Proba horretan, 25 puntu lortu ahal izango dira, guztira, eta hirugarren fasera igarotzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

5.– Hirugarren fasean edo proban, postuari dagokion jakintza arloan egindako ikerlan original bat aurkeztu eta aztertuko du lehiakideak. Proba horretan, 25 puntu lortu ahal izango dira, guztira, eta gainditzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

6.– Epaimahaiak plaza betetzeko proposamena egingo du, hiru probetan lortutako puntuazioaren batez bestekoan lortutako emaitzaren arabera ordenatuta, puntuaziorik handienetik txikienera. Berdinketa egonez gero, 1., 2. eta 3. proban, hurrenkera horretan, puntuazio onena lortutako lehiakidea proposatuko da.

7.– Epaimahaiak baloratu egin behar ditu abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuaren, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuaren babesean aitortutako ikerketa eta irakaskuntza aldiak.

8.– Epaimahaiak irizpide espezifiko guztiak haztatu beharko dituzte, kontuan izanda zer lotura duten eskatutako irakaskuntza edo ikerketa lerroarekin edo plazaren ezaugarriekin.

9.– Plaza ez elebidunetan euskara jakiteak proben puntuazio osoaren % 11 balioko du.

Irakasle osoen epaimahaiak lehen fasean aintzat hartu beharreko irizpide espezifikoak (ez dira nahitaezkoak eta ez dute puntuazio zehatzik):

#### Ikerketa jarduerak

Ikerketaren emaitzen kalitatea eta zabalkundea.– Zientziaren arloko argitalpenak, sorkuntza artistiko profesionalak, biltzarrak, hitzaldiak, mintegiak eta abar.

Ikerketa proiektuen eta kontratuen kalitatea eta kopurua.

Emaitzen transferentziaren kalitatea.– Patenteak eta jabetza intelektualen erregistroa, ezagutzaren transferentzia ekoizpen sektorerara, etab.

Irakasleen mugikortasuna.– Egonaldiak ikerketa zentroetan etab.

#### Beste merezimendu batzuk

Azalpenen argitasuna, aurkezpenean eta epaimahaiarekiko elkarrizketan.

Abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuan eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera aitortutako ikerketaaldiak.

#### Irakaskuntzako edo lan arloko jarduerak

Irakaskuntza. Noiztik noiz artekoa, zenbat motatakoa, zelako trinkotasunekoa, ardura, zikloak, unibertsitatean emandako irakaskuntza mota, zuzendutako doktorego tesiak eta abar.

Irakaskuntzaren kalitatea. Jasotako aldeko ebaluazioak, sortutako irakasmateriala, irakaskuntzari lotutako argitalpenak, hezkuntza berrikuntzako proiektuak, etab.

Irakaskuntzako prestakuntzaren kalitatea. Unibertsitateko irakasleentzako prestakuntza kongresuetan parte hartu izana, hizlari edo entzule gisa, irakasguneetan egindako egonaldiak, eta abar.

Enpresetan, erakundeetan, ikerketako erakunde publikoetan edo ospitaletan izandako jardura profesionalen kalitatea eta jardura horietan emandako denbora (irakaskuntza eta ikerketaren arlokoak ez diren jarduerak). Arduraldia, jardueraren ebaluazio positiboa, eta abar.

Azalpenen argitasuna aurkezpenean eta epaimahaiarekiko elkarrizketan.

Abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuan eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera aitortutako irakaskuntzaaldiak.

Lehiaketako 2. eta 3. probetan, eztabaidan azalpenak emateko argitasuna, eta irakaskuntza programaren edo ikerketa proiektuaren originaltasuna balioetsiko dira.

Irakasle agregatuak hautatzeko epaimahaiak kontuan hartu beharko ditu honako irizpide orokor hauek:

1.– Epaimahaiaren parte ez hartzeko eta epaimahaikideak errefusatzeko arrazoiak behin onartuta, epaimahaiko kideek ezin izango dute lehiakiderik utzi balioetsi eta kalifikatu gabe.

2.– Proba edo fase bakoitzaren balorazioa eta kalifikazio aritmetikoa lortzeko, epaimahaiakide bakoitzak emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egingo da.

Lehiaketako probak baztertzailerak izango dira, eta bakoitza gainditzeko gehieneko puntuazioaren erdia lortu beharko da.

Epaimahaiak ezin izango du eskatu fase bakoitzean ezarritako gehieneko puntuazioaren erdia baino gehiago ateratzea prozesua gainditzeko eta plazarako proposatua izateko.

Amaierako nota probetan lortutako noten batura izango da, eta horri 15. artikuluan aurreikusitako merezimenduetan, halakorik bada, lortutako puntuak batuko zaizkio.

3.– Lehen fasean edo proban, hautagaiak bere merituek, ikasketa, irakaskuntza eta ikerketa ibilbidea aurkeztu eta aztertuko du epaimahaiarekin batera eta, bai eta irakaskuntza eta ikerketa proiektua ere. Horren barruan, dagokion jakintza arloaren espezialitate edo gai baten programa sartuko da. Proban, 50 lortu ahal izango dira, gehienez ere, eta 2. fasera igartzeko 25 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

4.– Bigarren fasean edo proban, zozketan ateratako 3 gairen artean, hautagaiak bat aukeratu, eta horri dagokion programa aurkeztu eta aztertuko epaimahaiarekin batera. Proban, 25 puntu lortu ahal izango dira, gehienez ere, eta 3. fasera igartzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

5.– Hirugarren proban, hautagaiak ikerlan original bat aurkeztu eta aztertuko du epaimahaiarekin batera. Proban, 25 puntu lortu ahal izango dira, gehienez ere, eta gainditzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

6.– Epaimahaiak plaza betetzeko proposamena egingo du, hautagaiak puntuaziorik handienetik txikienera ordenatuta, hiru probetan lortutako puntuazioaren batez bestekoan lortutako emaitzaren arabera.

Berdinketa egonez gero, 1., 2. eta 3. proban, hurrenkera horretan, puntuazio onena lortutako lehiakidea proposatuko da.

7.– Epaimahaiak baloratu egin behar ditu abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuaren, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuaren babesean aitortutako ikerketa eta irakaskuntza aldiak.

8.– Epaimahaiak irizpide espezifiko guztiak haztatu beharko dituzte, kontuan izanda zer lotura duten eskatutako irakaskuntza edo ikerketa lerroarekin edo plazaren ezaugarriekin.

9.– Plaza ez elebidunetan euskara jakiteak proben puntuazio osoaren % 11 balioko du.

Irakasle agregatuak aukeratzeko epaimahaiak lehen fasean aintzat hartuko ditu irizpide espezifiko hauek (ez dira nahitaezkoak eta ez dute puntuazio zehatzik):

### Ikerketa jarduerak

Ikerketaren emaitzen kalitatea eta zabalkundea.– Zientziaren arloko argitalpenak, sorkuntza artistiko profesionalak, biltzarrak, hitzaldiak, mintegiak eta abar.

Ikerketa proiektuen eta kontratuen kalitatea eta kopurua.

Emaitzen transferentziaren kalitatea:– Patenteak eta jabetza intelektualen erregistroa, ezagutzaren transferentzia produkzio sektorera, etab.

Irakasleen mugikortasuna.– Egonaldiak ikerketa zentroetan, etab.

### Beste merezimendu batzuk

Azalpenen argitasuna aurkezpenean eta epaimahaiarekiko elkarrizketan.

Abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuaren, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuaren babesean aitortutako ikerketa aldiak.

### Irakaskuntzako edo lan arloko jarduerak

Irakaskuntza. Noiztik noiz artekoa, zenbat motatakoa, zelako trinkotasunekoa, ardura, zikloak, unibertsitatean emandako irakaskuntza mota, zuzendutako doktorego tesiak, eta abar.

Irakaskuntzaren kalitatea. Jasotako aldeko ebaluazioak, sortutako irakasmateriala, irakaskuntzari lotutako argitalpenak, hezkuntza berrikuntzako proiektuak, etab.

Irakaskuntzako prestakuntzaren kalitatea. Unibertsitateko irakasleentzako prestakuntza kongresuetan parte hartu izana, hizlari edo entzule gisa, irakasguneetan egindako egonaldiak, eta abar.

Enpresetan, erakundeetan, ikerketako erakunde publikoetan edo ospitaletan izandako jarduera profesionalen kalitatea eta jarduera horietan emandako denbora (irakaskuntza eta ikerketaren arlokoak ez diren jarduerak). Arduraldia, jardueraren ebaluazio positiboa, eta abar.

Azalpenen argitasuna aurkezpenean eta epaimahaiarekiko elkarrizketan.

Abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuan eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera aitortutako irakaskuntza aldiak.

Lehiaketako 2. eta 3. probetan, eztabaidan azalpenak emateko argitasuna, eta irakaskuntza programaren edo ikerketa proiektuaren originaltasuna balioetsiko dira.